

Euskararen ezagupenerako euskal parlamentarioen taldea osatuko da

Alain Lamassourek hartu zuen engaiamendua atzo, Jakes Abeberrik eskatuta

Hur Gorostiaga / Baiona

Joan den asteazkenean Frantziako Konstituzio Kontseiluak Eurokarta Konstituzioarekin bateragarri ez dela azaldu ondoren, euskarak ezagupena ukan dezan proposamen bat prestatuko duen euskal parlamentarioen taldea osatzeko engaiamendua hartu zuen atzo Alain Lamassourek, Jakes Abeberriren eskariz.

BAIONAN atzo egin zen Iparaldeko Udalen Biltzarra bukatzeaz zela, Jakes Abeberri Kontseilu Konstituzionalak hartutako erabakia goraki salatzeke hartu zuen hitza. «Ez dugu gehiago amestetan ibili behar, gaur egun euskarak ez dezake ezagupenik izan Konstituzioa aldatu gabe. Euskal parlamentarioek arazoaz arduratu eta antolatu behar dute Konstituzioa aldatzea erdiesteko. Horretarako, Lamassourek jaunari galdegiten diot mugimendu horren gidaritza har dezan, tokiko zen Frantziako sustenguekin, traba egiten duen Konstituzioaren bigarren artikulua aldatzea lortzeko. Azken finean, nahiz eta helburu horrekin egina ez dela dioen, berak sortu zuen bigarren artikulua, eta ondorioz berari dagokio zuzentzea», adierazi zuen Miarrizko auzapezorde eta Abertzaleen Batasuneko kideak.



Jakes Abeberri, Miarrizko auzapezorde eta Abertzaleen Batasuneko kidea, eskuinean eserita.

Alain Lamassourek erabateko adostasuna agertu zuen Abeberrik errandakoekin, eta, europarlamentario den aldetik, Jean Espilondo, Michelle Alliot-Marie, Michel Intxauspe diputatuekin zein Nicole Pery Estatu idazkariarekin batera, heldu den Udalen Biltzarrerako «proposamen zehatza» hitzeman zuen.

«Argiki erran behar dut bigarren artikulua zuzendu genuelarik Europaren baitan Frantziako hizkuntza desager ez zedin egin genuela.

Asanblea Nazionalean egin zen eztabaidan, alderdietako ordezkariak argi eta garbi utzi genuen frantsesa kanpoko hizkuntzetatik babesteko zela eta ez Frantziako eskualde hizkuntzen kaltetan. Konstituzio Kontseiluak hartutako erabakia ulergaitza da, desohoragarria», azaldu zuen.

Gisa horretan, bi aterabide aurkeztu zituen. Batetik, bigarren artikulua zuzentzea, bertan hizkuntza gutxituei buruzko erreferentzia bat

sarturik. Ildo horretatik, «gaur egun Konstituzioa aldatzea ez da hain zaila», adierazi zuen. Bigarrenik, ebazpena hitzez hitz harturik, Eurokartaren sar-hitza litzateke Konstituzioaren kontrakoa, eta ez Frantziak sinatu nahi dituen 39 artikulua. Ondorioz, 39 artikuluen mamia ordezkaturiko lukeen frantses legea sortzeko aukera aipatu zuen. Abeberrik, berriz, «Konstituzioa aldatu eta kito», erantzun zion.

«Euskara mehatxupean bizi dela berresten du»

Erredakzioa / Donostia
FRANTZIAKO Konstituzio Kontseiluak hartutako erabakia «euskara mehatxupean bizi dela berresten du», Herri Batasunaren ustez.

«1998ko martxoaren 1ean hizkuntza gutxituek estatus berria eta legezko babes zehatza lortu genuen nazioarteko zuzenbidean. Eurokarta itunak euskara eta beste edozein hizkuntza gutxitu erabilitzeko eskubideari giza eskubide baten ezagupena ematen dio», dio Herri Batasunak (HB), prentsa ohar batean.

Moscovici ministro frantsesak Budapestean itunaren 39 artikulua sinatzea, «ezer ez izatetik lehen ezagupen batera pasatzeko lehen urratsa izan zitekeen», HBren aburuz. Kontseilu Konstituzionalaren erabakia, ordea, besterik erakusten du: «Frantziak ohiko jarrera erakutsi du eta sinaturikoa despiste operazio hutsean geratu da».

Herri Batasunak gogor salatzen du oharrean Frantziako Kontseilu Konstituzionalaren erabakia. «Oinarrizkoa da euskarak lortzea gaztelaniak eta frantsesak estatu espainiarra eta frantziarraren barruan duten estatus bera. Hots, euskal lurraldeko hizkuntzaren lehentasuna errespetatuko duen ofizialtasun bikoitza lortzea, Europan eta munduan erabat erabat errekonozitutako hizkuntz komunitatea izan dadin».